2012-III-30
Número **365.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Ezinbestez

Espero genuen 29koa egun arrakastatsua izatea, eta halaxe izan zen. Espero izateak ordea, ez zuen estali momentuko zirrara eta poztasuna. Goiz goizetik jasotako makina datuek berresten zuten industria poligonoak eta enpresak itxirik zeudela, garraioan gutxieneko zerbitzuak soilik zebiltzala, zenbait irratik bakarrik informatiboak ematen zituztela, trafikoa askoz txikiagoa zela... Goizeko piketeen lanak, aurreneko ordutako manifestazioak eta elkarretaratzeak, kaleak grebalariaz betetzen ari zirela ikusten ari ginen. Orduak aurrera ikastetxeak, merkataritza, sektore publikoa... denek bat egin zuten grebaren deialdiarekin.

Grebaren jarraipeneko datuak ukaezinak dira, eta horrez gain azpimarratu behar da egunean zehar izandako mobilizazio ugariak, eta bereziki, hiriburuetan eguerdiko manifestazioetan izandako hamarna milaka eta milaka herritarrak. Arratsaldekoak ere ez ziren makalak izan. Beraz, zoriondu beharrean gaude euskal langile klasea, eta gizartea oro-har, emandako paregabeko erantzunarekin. Eta zoriondu ere, nola ez, eragile sozial eta sindikalen militantzia, bera izan baita mobilizazio dinamika honen akuilua. Konprometiturik gabeko militantziarik gabe ezinezkoa da inolako proiekturik garatzea, ezinezkoa da. Herriak gelditurik, herria mobilizaturik izan zen 29ko argazkia zuei esker.

Grebaren biharamunean gaude eta aurrera begiratzea dagokigu orain. Datozenak garai oso gogorrak izango dira, duda barik, baina erakutsi dugu zein den bidea. Herri honen langileriak erantzun du berak dakien bezala: elkartasuna eta borroka kolektiboaren bitartez. Gure buruarekiko konfiantza behar dugu, mobilizazioa eta borrokan konfiantza.

Eta balore horiek lantzeko eta garatzeko dugun tresna baliotsuena indartu beharra dugu: sindikatua indartu behar dugu. Langileen aldarrikapenak eta nahiak bideratzeko derrigorrezkoa dugu langileak inguratu eta antolatzea eraginkorrak izateko. Sindikatua, ezinbestez.



## El respaldo a la huelga general del 29M fue masivo y generalizado; Hego Euskal Herria paró contra la reforma y los recortes de derechos

# ZORIONAK

Podríamos titular este *Astekaria* monográfico de la huelga general del 29M con alguno de los espectaculares datos que reflejan el impresionante éxito de la convocatoria. Por ejemplo, que el paro en Hego Euskal Herria fue masivo y generalizado. Que el 87% de las empresas del sector industrial cerró. Que la actividad se redujo prácticamente a la nada. Que fueron más de 100.000 las personas que participaron en las manifestaciones del mediodía en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria...

Podríamos titular este *Astekaria* diciendo que la huelga general fue histórica. Y estaríamos en lo cierto. Los más veteranos militantes de nuestro sindicato tuvieron mucho trabajo ejercitando memoria. Había quien decía "no recuerdo nada así". Había quien hablaba de la huelga general del 14 de diciembre de 1988, y quien todavía retrocedía más en el tiempo.

Podríamos titular este *Astekaria* exigiendo al Gobierno del PP que dé marcha atrás en la reforma laboral y de negociación colectiva. Y sería un buen titular. El 29M quedó bien claro que la inmensa mayoría de Hego Euskal Herria está en contra de los recortes contra nuestros derechos. Que otras políticas son posibles. Que las continuas reformas y ataques no tienen otro objetivo que aplastar a la clase trabajadora en beneficio de la patronal y del capital.

Pero, el día después del 29M sólo puede tener un titular: ***ZORIONAK***. *Zorionak* a nuestra gente, a nuestra militancia. A todas esas personas que han luchado asamblea a asamblea, empresa a empresa, para hacer llegar el mensaje de ELA. *Zorionak* a todos los colectivos sociales que han sido imprescindibles para socializar la lucha contra la reforma y los recortes. *Zorionak* a quienes desde primera hora de la mañana salieron a la calle para decir *¡basta!* y defender lo que con tanto esfuerzo y sacrificio hemos logrado. En definitiva, *zorionak* a la clase trabajadora de Euskal Herria, que es la que nos da la fuerza y el oxígeno necesario para seguir adelante y luchar por una sociedad mejor.

Ya habrá tiempo y publicaciones para seguir hablando del tema. Hoy lo que toca es dar las gracias. **Zorionak!**



**Esta foto aérea de Bilbao realizada desde una avioneta es un claro ejemplo de la tremenda movilización que el 29 de marzo llenó las calles de Hego Euskal Herria. En la imagen se puede observar toda la Gran Vía y los alrededores llenas de gente durante la manifestación del mediodía. Imágenes parecidas se pudieron ver en Iruñea, Donostia y Gasteiz. En total fueron más de 100.000 las personas que se movilizaron en las diversas manifestaciones de la mañana. Nota: en la página web de ELA se pueden ver todas las imágenes, fotografías y videos de la histórica huelga general del 29M.**

## Intervención de Adolfo Muñoz, Txiki, tras la manifestación de Bilbao

# "RESPONDEREMOS AL RETO QUE TENEMOS POR DELANTE"




### ¿POR QUÉ OBJETIVOS HEMOS HECHO LA HUELGA?

**1.-** Para denunciar y hacer frente a la desprotección legal que impone esta reforma brutal. Hay que reforzar la defensa colectiva en los centros de trabajo. Es nuestra responsabilidad ante una patronal psicópata que confunde la honestidad con debilidad y solo piensa en sacar provecho del miedo.

**2.-** Para defender el empleo. Hay que obligar a cambiar las políticas, distribuir riqueza, potenciar la economía real, defender salarios y repartir el trabajo reduciendo jornada.

**3.-** Para financiar la solidaridad con un cambio radical de la política fiscal. Más urgente cuando se condena a muchas personas a la marginación. Es inhumana la negativa de nuestras Haciendas, que prefieren aplicar recortes a echar atrás los privilegios fiscales al capital y a las rentas altas.

### NO HA TERMINADO: LO QUE ESTÁN PREPARANDO ES MUY DURO

Sus políticas son el origen de los problemas. El origen de más paro y más pobreza. Lo saben pero no les importa. El paro y la pobreza crecen mientras defienden los intereses del capital. ¡Nuevos recortes de 60.000 millones de euros en dos años! Donde se han aplicado esas recetas la pobreza ha crecido muchísimo. Destruir empleo, bajar salarios y coberturas sociales, empeorar servicios públicos… Es la agenda neoliberal.

El capital impone márgenes muy estrechos a la política, y ésta los acepta. Para hacer lo que antes no pudieron. Quiere que toda la política haga lo mismo, bien de manera voluntaria o *por imperativo legal*. El capital dice a las élites políticas qué tienen que hacer, y estas lo hacen. Lo hacen y les terminamos molestando los que levantamos la voz porque sus decisiones nos perjudican.

Esa clase política y el capital comparten muchas cosas. CONFEBASK lo decía el fin de semana: "La verdad es que no me preocupa la posición de los partidos, sino la de los sindicatos". Normal que no le preocupe: Con muchos partidos comparten intereses, saraos, canapés y viajes. Comparten eso que llaman *colaboración público-privada* para asegurar que no se toma ninguna decisión contra sus intereses. Comparten que la vida pública tiene sentido si se trabaja para el interés privado. Para eso es imprescindible contar con políticos de plastilina que se adapten a todo. Políticos que no creen en nada.

### UTILIZAN A EUROPA DE POLICIA PARA DAR AL CAPITAL LO QUE QUIERE

Han construido una arquitectura política que sirve al capital. En Europa, en el Estado y en Hego Euskal Herria. Una arquitectura para que todas las Administraciones apliquen políticas de derechas, antisociales. Una arquitectura para difuminar los colores políticos hasta hacerlos desaparecer.

Quien manda en Europa ve cómo la socialdemocracia es solo un señuelo electoral que colabora con ellos. Mercado, mercado, mercado... Les estorba aquello que se oponga a convertir todo en objeto de negocio.

Ellos han fabricado la deuda y el déficit, y los usan de coartada para sacar adelante las reformas y recortes que les interesan. Es todo una gran mentira. En Grecia han obligado a los partidos a que, independientemente de lo que digan en los programas electorales, quien gane las elecciones no dé marcha atrás en ningún recorte. ¿De qué se trata? De cautivar, de engañar. Programas cargados de retórica hueca. Basta de hipocresía.

### LO MISMO EN EL ESTADO A TRAVÉS DE LA LEGISLACIÓN BÁSICA

Esa misma arquitectura y para los mismos objetivos funciona en el Estado español. El PP va a imponer mañana, mediante legislación básica, la destrucción coordinada de empleo (público y privado), recortes presupuestarios en el gasto social, la pérdida de derechos sociales y laborales…

Va a continuar con lo que inició Zapatero, que fue quien acordó reducir el déficit al 3% el próximo año. Rajoy va a imponer política de derechas y un ámbito de decisión política, el suyo. Sí, aprovechan la crisis para convertir a las Administraciones vascas en simples delegaciones administrativas de Madrid.

Algunos gobernantes en nuestro país (López, Barcina y otros) piden a gritos que Rajoy haga eso; que decida con rango de Ley Básica, que "les obligue a hacerlo" para lavarse la cara aplicando esas políticas. Eso es, simple y llanamente, inaceptable. Eso es actuar de *verdugo social*. No queremos verdugos y tenemos derecho a preguntar…

¿La política del PP es la política de todos los demás? ¿Sí? ¿No? Si es no, que se note... Si no se está de acuerdo, si creen en algo distinto... que no la apliquen. Que no sean ejecutores de la política más antisocial que hayamos visto. Sí, antes de aplicarla... ¡Váyanse!

Váyanse, antes de que todo el mundo concluya, como en Grecia, que da igual quién gobierna. Al capital no le importa el descrédito de la política. A nosotros sí. Nosotros sabemos que si se aplica esta política no hay alternativa.

Además, en Euskal Herria ni el volumen del déficit (2,59 CAV y 1,89 en Navarra), ni el de la deuda pública (7,90 CAV y 11,10 en Navarra) justifican, en modo alguno, las decisiones que se están tomando. Más aún si tenemos en cuenta el diferencial de presión fiscal. Es injusto y además innecesario. Es insensato, es brutal.

### EXIGIMOS ACCIÓN POLÍTICA DE SOBERANÍA SOCIAL. LO EXIGIMOS HOY

Exigimos un acto político de soberanía que guarda relación directa con los derechos sociales y laborales: Que la política se rebele ante este saqueo. Que no se apliquen los recortes... Un acto soberano que proteja a los ciudadanos-as de nuestro país y sus derechos. Esa es la soberanía que queremos: Actos de soberanía hoy, no mañana, hoy.

¿Van a aplicar los partidos vascos y nuestras instituciones esas políticas contra sus ciudadanos? ¿Van a hacer seguidismo del inquilino de turno en la Moncloa? ¿Nos van a explicar que *cumplen órdenes*? Esa decisión la tiene que tomar cada partido e Institución, porque es ahí a donde se les lleva. No lo van a poder disimular. Nosotros vamos a señalar en negativo, a quien haga seguidismo; y en positivo, a quien aplique políticas alternativas. Es lo que hay que hacer.

La credibilidad es imprescindible en la política Necesitamos, exigimos, acción política distinta. Acción y no retórica electoral. Esta huelga general reclama eso. Que la política se reivindique, que sepa decir NO, que ponga los intereses sociales en vanguardia. Que atienda este clamor social, que entienda la calle y su exigencia. Hoy, hacer eso, es urgente. Hacerlo, supondría un acto de soberanía democrática con raíces sociales; supondría seguir el camino de Islandia y no el de Grecia. Supondría, poner la política al servicio de la solidaridad. Es lo que pedimos.

Por si todavía no lo saben... el ataque que sufrimos (y que va a continuar) es terrible, desconocido hasta ahora. Es muy duro lo que preparan. Tenemos la obligación de decirlo para despertar conciencia social; para gritar: Basta de pisotear al débil. No queremos que, en base a mentiras y manipulaciones, nuestros representantes políticos hagan eso.

### CONTINUIDAD DEL TRABAJO CONJUNTO

Los que estamos aquí –sindicatos y movimientos sociales– debemos continuar con una agenda alternativa. Nos necesitamos, sin admitir ninguna subordinación. Hoy no acaba nada.

**UN MENSAJE:** Confianza en nosotros, confianza en la lucha y la movilización, confianza en la organización. Es imprescindible. Este es el camino; este es nuestro camino.

## Hego Euskal Herria lan erreforma eta eskubide murrizketen aurka

# LANUZTE IKARAGARRIA



Grebak ia erabateko erantzuna izan zuen sektore eta enpresetan. Hona hemen greba deialdiak izan zuen jarraipena, datuetan laburbilduta.

## INDUSTRIA-SEKTOREA

Industria-sektoreko datuak ikusirik, grebak oihartzun handia izan du, eta jarraipena ia erabatekoa izan da.

**Araba**: 120 enpresa. Lanuztea %70 baina handiagoa: 93 (%77,50); lanuztea %30 baina handiagoa: 17 (%14,17); lanuztea %30 baina txikiagoa 4 (%3,33). Daturik gabe: 6 (%5,00).

**Bizkaia**: 213 enpresa. Lanuztea %70 baina handiagoa: 186 (%87,32); lanuztea %30 baina handiagoa: 19 (%8,92); lanuztea %30 baina txikiagoa 5 (%2,35). Daturik gabe: 3 (%1,41).

**Gipuzkoa**: 208 enpresa. Lanuztea %70 baina handiagoa: 191 (%91,83); lanuztea %30 baina handiagoa: 11 (%5,29%); lanuztea %30 baina txikiagoa 5 (%2,40). Daturik gabe: 1 (%0,48).

**EAE**: 541 enpresa. Lanuztea %70 baina handiagoa: 470 (%86,88); lanuztea %30 baina handiagoa: 47 (%8,69); lanuztea %30 baina txikiagoa 14 (%2,59). Daturik gabe: 10 (%2,59).

**Laburbilduz:** EAEko 50etik gora langile duten enpresen zerrenda bat jaso dugu, grebaren alde lantoki bakoitzean hartutako erabakia zenbatekoa izan den adieraziziz. Enpresa guztien artean, %30etik gorako lanuztea %95,57ean izan da. Erabateko lanuztea –%70etik gorakoa– 470 enpresatan izan da, hots, enpresen %86,88an.Greba %30etik azpitik egin den enpresa industrialak 47dira, %8,69a. Lanuztea oso txikia izan da edo eguneroko jarduera bete dute 14 enpresatan (%2,59). Informazio hau egiteko unean 10 enpresaren berririk ez daukagu (%1,85).

**Nafarroari dagokionez**, lanuztea bereziki garrantzizkoa izan da Iruñerria aldean hainbat eta hainbat erreferentziazko enpresak itxi dutelarik. Sakana eta Nafarroako Iparraldean lanuztea erabatekoa izan da. Era berean, Tafalla ingurutan eta Erribera osoan grebari emandako atxikimenduak oihartzun oso zabala izan du.

Beste alditan ez bezala, kooperatiben sektoreko enpresa askok bat egin du greba deialdiarekin.

Bestalde, ehundaka enpresa txiki eta ertainetan ere lanuztea erabatekoa izan da; horrek deitutako grebari langileek eman dioten erantzun orokorra nabarmendu du.

### BIDAIARIEN GARRAIOAK

Lanuztea ia erabatekoa izan da, gutxieneko zerbitzuak bakarruik aritu direlarik. Trenbideetako bidaiarien garraioan, EuskoTrenen, Bilbo eta GasteizkoTranbietan eta Bilboko Metroan, nahiz Bilbo, Donostia eta Gasteizko hiri garraioetan lanuztearen jarraipena erabatekoa izan da, errepidezko bidaiaren garraioan bezalaxe. Salgaien garraioan greba oso zabala izan da.

### GASOLINDEGIAK

Lanuztea oso handia izan da eta oinarrizko zerbitzuak bakarrik bete dira.

### BILBOKO ETA PASAIAKO PORTUAK

Lanuztea erabatekoa izan da eta oinarrizko zerbitzuak besterik ez dira eman.

### ERAIKUNTZA

Grebak obra handietan eragin du, batik bat Gipuzkoan; grebaren eragina desberdina izan da, baina oso zabala, Bizkaia, Araba eta Nafarroan. Gainera, porlanaren industria eta hormigoi ekoizle eta banatzaileetan greba erabatekoa izan da (Lemona Industrial, Añorga eta Arrigorriagako Financiera y Minera, Portland Valderrivas).

### KOMUNIKABIDEAK

Prentsa idatzian grebarekin bat egin dute *Gara*, *Berria* eta *Diario de Noticias de Navarra* eta ez dira argitaratu. Bestalde, *Diario de Noticias de Alava* eta *Noticias de Gipuzkoan* langile askok greba egin arren egunkariak atera dira, *Diario Vascon* gertatu bezala.

Ikus-entzunezko hedabideetan EITBko taldean grebak jarraipen osoa izan du Euskal Telebista, Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Radio Vitorian, gutxieneko zerbitzuak bakarrik funtzionatu dutelarik.

## ZERBITZU PUBLIKOAK: LANUZTEA ERABAT OROKORRA

Zerbitzu publikoetan grebak jarraipen oso zabala izan du sektore ezberdinetan.

### EAEKO SEKTORE EZBERDINETAN ERAGINA:

**Herri eta Foru Administrazioa**n grebaren erantzuna ia erabatekoa izan da eta itxi ez diren administrazioetan %80tik gorako jarraipena izan du. Benetan deigarria hiriburuetan izandako jarraipena, hiruretan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen, jarraipena %90tik gorakoa izan da eta.

Erabatekoa izan da Zarautz, Tolosa, Ordizia, Zizurkil, Urnieta, Legazpi, Lezo, Oñati, Eibar, Mendaro, Andoain, Usurbil, Beasain, Hondarribia, Orio, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Arrasate, Soraluze, Durango, Bermeo, Gernika, Zornotza, Lekeitio, Iurreta, Berriz, Muxika, Ispaster, Mundaka, Zaldibar, Aretxabaleta, Zumarraga, Lasarte, Elgoibar, Lazkao, Irura, Getaria, Bergara, Zaratamo, Zeanuri, Igorre, Agurain, Plentzia, Sopela, Sondika, Gorliz, Leioa, Erandio, Errenteria, Antzuola, Hernani, Urretxu, Ibarra, Ondarru, Arrigorriaga, Laudio, Lemoa, Muskiz, Zierbana, Murgia eta beste hainbat herri txikiagotan.

%80tik goragoko erantzuna eman dute Irun, Portugalete, Barakaldo, Sestao, Santurtzi Getxo eta Mungiako udaletako langileek.

Bestalde, Foru Aldundietan ere jarraipena oso zabala izan da eta orokorrean %90tik gora koka dezakegu. Diputazioen menpe dauden zerbitzu sozialen kasuan gutxieneko zerbitzuek bakarrik lan egin dute.

**Administrazio Autonomoa**n jarraipena %80tik gorakoa izan da, eta Justizian jarraipena oso zabala izan da eta kasu askotan zerbitzu minimoek bakarrik lan egin dute.

**Irakaskuntza**ri dagokionez inoizko grebarik handiena izan da, lanuzteak erabateko jarraipena izan duelarik. Ikastetxe askotan zerbitzu minimoak besterik ez dira bete eta orokorrean %90tik gora langilek egin dute lanuztea.

**Osakidetzan**, azken urteotako mobilizaziorik handiena izan da eta zentru gehienetan zerbitzu minimoek bakarrik lan egin dute. Eragina izan du esparru ezberdinetan, lehen arretan nahiz ospitaleetan, nahiz eta zerbitzu minimoak gehiegizkoak izan.  Aipatzekoa da zerbitzu minimoei dagokionez administrazioak langileak presionatzeko erabili dituen amarruak, horrela mobilizazio masiboa izan dena ezkutatu nahian.

**Gizarte-Ongizate Zerbitzuetan** grebak jarraipen oso zabala izan du eta kasu ia guztietan zerbitzu minimoek bakarrik egin dute lan. Besteak beste aipatzekoa da Bilboko Caser eta Arbidea zaharren egoitzetan, Eibarreko Egoainen, Erandioko Loramendi, Derioko Gurena, Miranda Fundazioan, Aspaldikon, Zornotzako Nafarroa eguneko zentruan eta Donostiako Txara I, II eta Villa Sacramenton grebak izandako jarraipen zabala

**Erakunde eta Enpresa Publikoetan** lanuzteak oso garrantzizkoak izan dira. Neiker, Itsasmendikoi, edo Kalitatea Fundazioan bezalako enpresetan gutxiengo zerbitzuak bakarrik bete dira.

**Estatuko Administrazioan**, grebak oso jarraipen zabala izan du, Posta zerbitzuan %70tik gorako jarraipenarekin; Administrazio Orokorrean Gipuzkoan %70eko jarraipena izan du, Bizkaian %60koa eta Arabako kasuan grebak jarraipen apalagoa izan du.

### NAFARROAKO SEKTORE PUBLIKOKO EMAITZAK:

**Irakaskuntza** eta **Osasunbidea**: Grebaren jarraipena azken urteotako handiena izan da eta leku askotan zerbitzu minimoak bakarrik aritu dira.

**Udalak**: Burlata, Villava-Atarrabia, Altsasu, Lesaka, Baztan, Bera, Egüés, Antsoain, Agoitz, Berriozar eta beste abarretan lanuztea erabatekoa izan da. Iruña, Tudela, Zangotza, Tafalla, Lizarra eta Ezkabarte bezalakoetan jarraipenak oso erantzun zabala izan du.

**Estatuko Administrazioa**: Lanuztea erabatekoa izan da.

**Beste eremuetan**: Nukleo, Emergentziak, Menpekotasunaren Agentzia, Justizia, Enpleguko Zerbitzua eta Lan Osasuneko Institutua bezalako erakundeetan lanuzteak garrantzia handia izan du.

## ZERBITZU PRIBATUAK: ERANTZUNA OSO ZABALA

Grebak zerbitzu-sektorean ere eragin oso handia izan du, ia erabatekoa izan delarik makina sektoretan.

**Merkataritza**ri dagokionez, merkatal eraikin handietan, hara nola Eroski (bere eraikin gehienak itxita egon dira), Carrefour, Alcampo, Ikea Norte eta Lery Merlin eta janari banatzaileetan (Ercoreca, BM, Sabeco, Dia, Lidl) langileen gehiengo nabarmenak egin du greba eta eraikin ia denak itxirik egon dira. Oihalgintza sektoreko saltoki ezagunenetan greba oso zabala izan da. Halaxe izan da Inditex taldeko Pull&Bear, Zara, Stradivarius, Bershka, eta bestetan HyM eta Cortefiel bezalaxe.

**Hornidura-azoka handietan**, MercaBugati Gipuzkoan ia erabat itxita izan da eta MercaBilbaok Bizkaian erantzun garrantzizkoa eman dio grebaren deialdiari.

**Denda txikietan** eta **ostalaritzan** grebaren jarraipenak hedapen oso zabala izan du. Nabarmentzekoa da lanuztea ia erabatekoa izan dela Gipuzkoan eta zerbait txikiagoa Bizkaia eta Araban.

**Kaleetako eta eraikin zein lokalen garbitasun zerbitzuetan** lanuztea ia erabatekoa izan da, kirol-zerbitzu eta hainbat hiritako TAOan bezalaxe.

**Jangelen kudeaketa**ren sektorean lanuztea orokorra izan da, bai sukalde zentraletan eta baita eskola publiko nahiz pribatuen jangeletan.

**Finantza-sektorea**n, berriz, grebak eragin partziala izan du; ez da lanegun normala izan, eta banketxe eta kutxetako bulego asko itxita egon da.

Aipagarria da ere politikako eta gizarteko sektore eta talde ugarik deialdi honi eman dioten babesa. Azkenik, esan beharra dago ehun mila langile inguruk hartu duela parte eguerdian Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Bilbon izan diren manifestazioetan jendetsuetan.

astekaria

# M29: EGUNA IRUDIETAN




















**www.ela-sindikatua.org**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org